




488 ZB.KO DEKRETUA.



Oiartzungo haranean, bi mila eta hamarreko maiatzaren hogeita seian.

Jendaurrean zabaldu gabeko negoziaziozko prozedura jarraitu eta gero, 2010eko maiatzaren 4an Udal honetako Alkate-Lehendakari jaunak emandako 407 zk.ko Dekretu bidez "Gotti-Betti" Oiartzun herriko ekitaldien agenda argitaratzea eta diseinatzea hornidura-kontratua IMPRELAN enpresari behin-behingo esleitzea erabaki zuen.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.4 artikularekin adostasunean hamabost egun balioduneko epea eman zitzaion behin betiko bermea ezar zezan, eta Gizarte Segurantzaren eta zerga betebeharraren eguneratua dagoen ziurtagiriak eta bestelako dokumentazioa aurkez zezan.

Horiek aurkeztuta, Legearen 135.4. artikularen 3.parrafoaren arabera, aurreko epea igaro eta gehienez hamar egun baliodunetan behin-behineko esleipena behin betiko deklaratu da.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espediente bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, Toki Jaurbideak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, ZERA ERABAKITZEN DUT:

Emandako epean IMPRELAN enpresak bermea ezarri eta aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu dituzenez, "Gotti-Betti" Oiartzun herriko ekitaldien agenda argitaratzea eta diseinatzea hornidura-kontratua IMPRELAN enpresari behin betikoz esleitzea, 8.096,80€ko prezioarekin (BEZ barne), eta hornidurak hilabete bakoitzeko 26an entregatu beharko ditu.

Ordainketak Udal Aurrekontuko 1 0101 226 111 0003 2010 ( A 873-2010) diru atalaren kargura bideratu da.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

